

Hilda aurkitu dute Bardeetatik gertu izan zen istripuko pilotua

Baliteke hegazkinen kaxa beltzek argitzea istripuaren zioa

Erredakzioa / Donostia

**Gau osoa bilaketa lane-
tan igaro ondoren, hon-
dakinen artean hilda aur-
kitu zuten Ignacio Segu-
ra, bigarren hegazkineko
pilotua. Oraindik ez dago
argi zerk eragin zuen
Espainiako Armadako bi
hegazkinek elkar jotzea,
baina baliteke datozen
egunetan hegazkinen
kaxa beltzek argitzea.**

ISTRIPUA Aragoiko Ejea de los Caballeros herrian gertatu zen, Bardeetan maniobra militarrek egiten ari zirela Armadako bi F-18 hegazkinen elkar jo ondoren. Ezbeharraren ondorioz, beste gidaria zaurituta aurkitu zuten, istripua gertatu zen tokiaren inguruan.

Bardeetako Tiro Poligonoan maniobra militarrek egiten aritu ziren, eta Zaragozako Basera bidean ziren Espainiako Armadako bi hegazkinak elkar jo zutenean.

EFE agentziari iturri ofizialek azaldukoaren arabera, Ignacio Segurak, 33 urteko kapitainak, ezin izan zuen hegazkineko aulkiko eiekzio mekanismoa martxan jarri.



JAVIER CEBOLLADA / EFE

Soldadu bat, ezbeharraren ondorioz txiki-txiki eginda geratutako hegazkin militarri begira.

Gau osoa pilotuaren bila pasatu ondoren, atzo goizaldean aurkitu zuten erreskate taldeek, hegazkinaren hondakinen artean.

Ezbeharraren zergatiak argitzeke

Dena den, oraindik goizegi da bi hegazkinek elkar zergatik jo zuten argitzeko. Espainiako Armadako iturrien arabera, «hildako pilotuak espe-

rientzia handia zuen eta hegazkinak dauden moderno, seguru eta fidagarrienak dira». Adituen ustez, istripuak ustekabeen harrapatu zituen bi gidariak inolako «laguntza deirik» ez zutelako egin.

1968. urtean gertatu zen lehen istripua Bardeetako Tiro Poligonoan. Ordutik, beste 28 gertatu dira, eta orotara, atzokoarekin, 22 pertsona hil dira aipatu ezbeharraren.

Rafa Sanchez • TIRO EREMUAREN KONTRAKO PLATAFORMAKO KIDEA •

«Ezin dugu jokatu gehiago errusiar erruletan»

A. Barandiaran / Iruñea

NAFARROAKO mugatik gertu ia egunero jasan behar izaten dute Espainiako Armadaren joan-etorria. Bardeetako Poligonoaren kontra urteetan lan egin duen batzordearen kide Rafa Sanchezen esanetan, «Damoclesen ezpatarekin» ez dute gehiago bizi nahi.

■ Azken istripu horrek danbateko ederra eragin- guztuen zuen artean. Zer irizten diozu?

Guk badakigu istripu hori ez dela ez lehena eta ez azkena izango. Gure gainean dugu, egunero, une oro, Damoclesen ezpata bat, eta orain politikariek badute aukera arazoa konpontzeko, jakina baita 2001. urteko ekainean

amaituko dela Espainiako Armadak duen kontratua bertan tiro eremua edukitze-ko. Nafarroako Gobernuak, Bardeetako Batzordeak, inguruko herriek, denek esan dute ez dutela nahi bertan tiro eremurik, eta orain da garaia zerbait egiteko, batez ere parke naturala izendatu delako.

■ Nolanahi ere, ez dago mugimendurik tiro ere- mua eraisteko.

Ez, eta horrek kezkatzen gaitu. Erakunde guztiei esan behar zaie ardurak hartu behar dituztela. Uste dugu badela garaia mahai gainean kolpea jotzeko eta militarren erabilpena buka dadila eskatzeko. Erantzuna politikarientz da orain, jendeak argi eta garbi esan duela, ez duela poligonorik nahi.

■ Istripu horren gertu ger- tatuta, zein da Erribera- ko jendearen gogo?

Jendea kezkatuta dago, jakina. Batez ere, ezjakintasun horregatik; zerutik zer eroriko ote den. Gainera, gogoratu behar dugu duela ez asko antzeko istripu larri bat jazotzeko arriskua izan genuela; hegazkin batek Zaragozaraino joan behar izan zuen bonba trabatuta. Tiro eremu honetan hogeita hamar istripu inguru gertatu dira, eta orain arte herri baten gainean ezer erori ez bada ere, ezin dugu eta ez dugu nahi jokatu errusiar erruletan gehiago. Ez dago aitzakia politikorik. Tiro eremua kentzeko eskatu behar dugu, eta ja lanean hasteko eskatu behar dugu.

l a b u r r e a n

■ Elgeako Parke Eolikoko haize errota batzuk kiskali dira, horiek zeramatzan kamioiari su eman eta gero

JOAN DEN larunbatean sabotaje ekintza bat izan zen Barrundian (Araba), Elgeako Parke Eolikoaren kontra. Gaueko 21:35ak aldera pertsona batzuek su eman zieten kamioi bati, eta suaren ondorioz, kiskalita geratu ziren bai kamioia eta baita barruan zituen parke eolikorako haize errota batzuk ere. Ertzaintzak atzo baieztatu zuen gertaera, eta esan zuenez, pertsona batek eman zion Polizia Autonomikoari gertaeraren berri, joan den larunbatean. Suhiltzailak kamioia zegoen tokira joan ziren, eta sua amatatzea lortu zuten. Kamioia ostegunetik zegoen geldirik Barrundian, eta Eolicas de Euskadi parke eolikoa egiten ari den enpresak salaketa jarri zuen gertaera horregatik.

■ EAEko Abiadura Handiko Trenaren proiektua Madrilen martxan dagoela dio Arabako Herrilan diputatuak

ARABAKO FORU Aldundiko Hirigintza eta Herrilan diputatu Antonio Aguilarrek atzo azaldu zuenez, EAEko AHT Abiadura Handiko Trenaren proiektua ez dago geldirik Madrilen, eta Espainiako Sustapen Ministerioak horretara bideratutako dirua horren frogara gaineratu zuen. Kazetariei egingako galderei erantzunez esan zuenez, Madrilen gaia martxan dago, eta Espainiako Gobernuak «interes handia» du proiektuan. Hala ere, Aguilarrek gogoratu zuen AHTren proiektuak bateragarria izan behar duela Arabako beste azpiegiturek sortzen duten ingurumen eraginarekin, kaltea ahalik eta txikiena izan dadin. «Uste dut proiektu berriak apustu inportantea egiten duela, norabide horretan bi tunel eraikiz, eta Zadorraren bestaldean trenbide zaharrak zuen eragina desagertaraziz», azaldu zuen.

■ Eusko Jaurlaritzak 900 milioi pezeta bideratuko ditu 2000-2001 ikasturtean ikerketarako diru laguntzetara

DOKTOREGO aurreko eta ondoko ikerketak egiteko 900 milioi pezeta bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak 2000-2001 ikasturtean (36 milioi libera), atzo erabaki zuenez. Doktorego aurreko programa bat eskainiko du oinarritzko heziketa emateko ikerketa zientifiko, humanitario eta teknologikoan tesia egin nahi duten unibertsitateko goi tituludunei. Doktorego ondoko beken helburua, berriz, hauxe da: doktoreei aukera ematea ikerketan trebakuntza handiagoa lortzeko, Euskal Herriko edo atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentruetan ikerketa egitasmoa eginez. Bestetik, euskarazko ikas materiala egiteko 160 milioi pezetako laguntzak ematea onartu zuen Jaurlaritzak (6,4 milioi libera), eta ikastetxeetan ikasle trukaketak egiteko 7,1 milioi pezeta ematea (284000 libera).

■ Pertsona bakarrak eman du izena aurtan Iruñeko Apaizgaitegian

MUTIL bakarrak eman du aurtengo ikasturtean izena Iruñeko Apaizgaitegian. Datorren igandean San Jose eguna dela eta, idazki bat egin du Iruñeko artzapezpiku Fernando Sebastianek, eta Nafarroan apaizgai eskasia dagoela gogoraraziko du. Familiei eskatuko die gazteak bizitza kristauan hezteko. San Jose eguneko ekitaldi nagusian bost lagun lagun diakonotza eta presbiteradotzako hautagai izendatuko ditu eta beste bost meza-laguntzaile eta irakurle izateko hautagai —hamazazpi apaizgai daude—. Arratsaldeko bostetan egingo dute ekitaldia, apaiztegiko kaperan.

■ Araban ez da lehorte arriskurik, urtegien %86 beteta baitago, Amvisako Jose Antonio Pizarroren arabera

ARABAKO urtegien %86 beteta dagoenez, datozen hamaika hilabeteetan lehorte arriskurik ez dago euria ez egin arren, Amvisako ordezkari Jose Antonio Pizarrok atzo esan zuenez. Beste urteekin alderatuz, bakarrik hiru eta zazpi puntu beherago daudela adierazi zuen Pizarrok, eta urtegiak «oso egoera onean» daudela. Nahiz euria ez egin, hezetasun handia dago, Pizarroren arabera, eta horrek urtegien maila mantentzen lagundu du.

■ Mugarik Gabeko Medikuek hiesari aurre egiteko botikak merkatzeko eskatu dute

HIESA sendatzeko botikak egiten dituzte Pfizer laboratorioran, eta geroz eta eraginkorragoak dira. Mugarik Gabeko Medikuek salatu duenez, ordea, oso garestiak dira, eta horregatik, atzo Bruselan bilkura bat egin zuten, sendagai horien merkatzea eskatzeko. «Pertsonak hiltzen ari dira, sendagai horiek garestiegiak direlako», salatu zuten.